


Sare sozialen egitura zentralizatuen arrakastarekin, Internetek eskaintzen zuen askatasun eta burujabetza galera suposatu digu. Bitartekaritza modu zentralizatuak gainera datuen kontrola, zentsura posiblea, aberastaunaren apropiazioa... Komunikazioan konturatu gabe, gure komunikazioaren bitartekaritza Facebook eta Google bezalako enpresei oparitu diegu, gure datuekin, gure harremanekin, gure bizitzarekin dirua ateratzeko. [Alternatiba](#), beti egon ohi da, etengabe alternatibarik ez dagoela esaten diguten arren.

Horri buruz eztabaidatzeko, [Free Software Foundation](#)-ek lagundutako [GNU social](#)-en bueltan dabilen komunitatea [GNU Social Camp](#)-ean bildu da Xixonen. Bertan [Mikael Nordfeldth](#) garatzaile nagusia, [Hannes Mannerheim](#) qvitter-eko sortzailea, [Pablo Bernardo](#) Firefox OS garatzailea eta [Manuel Ortega](#) WP-GNU Social pluginaren garatzailea eta antolatzailetako bat izan ziren bertan.


Mikaelek [OStatus](#) protokoloaren berri eman zuen eta sareen arteko harremana nola ezarri daitekeen azaldu. GNU Socialen implementazioa eta Diasporaren arteko aldeak ere azaldu zizkigun. Horrekin batera teknologia hauek, WordPress bezalako teknologiekin uztartzeko aukera ere eztabaidatu genuen.



Pablok ondoren, javascript-en egindako GNU Social bezero baten kontzeptu bat aurkeztu zuen, mugikorretarako javascript garapena egiteko kontutan hartu beharrekoak azaldu ondoren.

Erabilitako aurkezpena eta fitxategiak bere [github biltegia](#) aurki ditzakezue.

Manuel Ortegak, [WP-GNU social](#) pluginaren garatzaileak, aurkezle lanak egiteaz gain, GNU Social-ek elkarrekintzarako ematen dituen aukerei buruz hitz egin zuen. Bereziki hiri, herri eta komunitateetan tresnak elkarrekintzarako eta hauen egituraketarako duen balioaz. Pluginari buruz hitz egin ez bazuen ere, oso tresna interesgarria da WordPress-eko komentario sistema GNU Social nodo batekin lotzeak, elkarriketak sortzeko aukera handiak eskaintzen dituelako.



Bukatzeko, Hannes-ek [qwitter](#) eta [qwitter.se](#) sortzearen arrazoiak azaltzeaz gain, GNU Social *backend* moduan baliatzeko aukerei buruz hitz egin zuen. Horretarako *pluginak* eta *themeak* bertan nola sortu daitezkeen azaldu zizkigun. Qwitterren bidez Twitterren interfazea kopiatu izanak, mugimendu estrategiko moduan planteatu zuen. Hortik tiraka, GNU Social gauza gehiagotarako erabiltzen hasteko intentzioarekin. Aurkezpen moduan, GNU Social instantzia bat erabili zuen; hortxe daude bere [aurkezpena eta pantailak](#) eskuragarri.

Amaieran, [instalazio hobekuntzak](#) egin eta *plugin* garapenak egiten hasteaz gain, [Peersound](#) bezalako beste proiektu batzuk ere ezagutzeko aukera izan zen bertan. Hori bai, proiektu eta tresna guztiek, estrategia banatuak eta burujabetza izan zituzten oinarri oinarrian. Google, Facebook, Apple, Monsanto edo Volkswagen enpresek eskaintzen duten etorkizunarekin bateragarria ez den etorkizun berri baten printzak eskainiz. Hiri, herri, auzo eta gure bizitzekin

harreman zuzenagoa duen etorkizun bat alegia.

